

LORATZEN

NERABEZAROTIK HELDUARORAKO TRANTSIZIOAN BIDELAGUNTZA

Taldeak eta ordutegiak familiarekin edo/eta tutoreekin egingo den balorazio-bileraren menpe egongo dira. Bilerak egin ondoren, Mindarak proposamen zehatza egingo du



DEFINIZIOA

LORATZEN PROGRAMA GIZAKIDE PROIEKTUAREN BARRAUN DAGO ETA URRITIK EKAINERA BITARTEKO SAIOAK BURUTZEN DIRA. BESTE PROGRAMETATIK ALDERATZEN DA UZTAILEAN ERE SAIOAK BURUTZEN DIRELAKO. PROGRAMA HONEN HELBURUA DA NERABEZAROAURREKO ETA NERABEZAROKO NESKA-MUTILEI HELDUARORAKO TRANTSIZIO-PROZESUETAN LAGUNTZEA. BERE AUTONOMIA AISIALDIKO JARDUEREN BIDEZ SUSTATU NAHI DU, ETA, HORRELA, DIBERTSIORAKO, IKASKUNTZARAKO ETA GARAPEN PERTSONALERAKO ESPAZIO BAT SORTU. BERTAN, PARTE-HARTZAILE BAKOITZAK BERE BURUA IDENTIFIKATZEN, MAITATZEN ETA BERDINTASUNEZKO TALDE BATEKO KIDE IZATEN IKASTEN DU. AURREIRITZIETATIK ETA KRITIKETATIK ALDENDUZ, ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN GIZARTE-BIZITZA NORMALIZATZEA LORTZEN DU, BIZI DIREN GIZARTEAN ESKUBIDEZ DAGOKIEN ESPAZIOA ALDARRIKATUZ.

HELBURUAK

1. PERTSONA GISA IDENTIFIKATZEA ETA HAIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK EZAGUTZEA.
2. AISIALDIAN AUKERA EZBERDINEZ GOZATZEA: KALEA, JATETXEAK, KAFETEGIAK, PARKEAK, UDAL ESPAZIOAK, MUSIKALAK, KONTZERTUAK, ETAB.
3. AUTOKUDEAKETA-TREBETASUNAK GARATZEA (DIRUA, TREN-ORDUTEGIAK, AUTOBUSAK, ERRESERBAK EDO INPROBISAZIOA, ADIBIDEZ).
4. GIZARTE-TREBETASUNAK GARATZEA (ASERTIBITATEA, ENTZUTEA, HITZEZKO ETA HITZIK GABEKO ADIERAZPENA, NEGOZIAZIOA, ESKAERAK EDO KRITIKAK JASOTZEA KALTETUA SENTITU GABE, ADIBIDEZ).
5. BIZI ETAPAKO GAI INTERESGARRIAK AZTERTZEA (SEXUALITATEA, AFEKTIBITATEA, ADISKIDETASUNA, AUTOIRUDIA, ANIZTASUNA, GAITASUNA ETA DESGAITASUNA, FAMILIA, GIZARTEA ETA AISIALDIA, ADIBIDEZ).

LAN METODOLOGIA

TALDEAK ERABILTZAILEEN INTERESEN, GAITASUNEN, BEHARREN ETA TREBETASUNEN ARABERA SORTZEN DIRA, BAI ETA ADINAREN ARABERA ERE. LORATZEN PROGRAMAN SARTZEN DIREN ERABILTZAILEEK, LEHENIK ETA BEHIN, BALORAZIO-BILERA BAT EGITEN DUTE, EGIAZTATZEKO PERTSONAREN PROFILA BAT DATORRELA PROGRAMAK SUSTATZEN DITUEN HELBURUEKIN. INTERESDUN BAKOITZAREN EGOERA PERTSONALARI DAGOKIONEZ, PROFESIONALEK ZEHAZTEN DUTE ZEIN TALDETAN SAR DAITEKEEN INTERESDUNA. HELDUARORAKO TRANTSIZIOA HIRU TALDETAN BANATUTA DAGO, ETA FAMILIAREKIN ADOSTU BEHAR DA HIRURETATIK ZEIN DEN EGOKIENA GAZTEAREN BILAKAERARAKO. GAINERA, TALDE BAKOITZAREN PROZESUARI DAGOKIONEZ, BAKOITZAK BIZI DITUEN ALDAKETA PERTSONALAK IGAROTZEKO SAIO KOPURU EGOKIA IZANGO DU. BERAZ, TALDE GUZTIEK EZ DITUZTE BILKURA-ORDU BERBERAK IZANGO, SAIO-ORDUAK TALDE-PREMIETARA EGOKITUKO BAITIRA. EGITEN DEN LANA PROFESIONAL TALDEAN LANDU ETA BALORATZEN DA MODU KOORDINATU BATEAN.

ARAUAK ETA MATERIALA

ASISTENTZIA ERREGULARRA, PUNTUALTASUNA ETA FAMILIA-KOMPROMISOA, MINDARAK KONTRATATUTAKO PROFESIONALEK EGITEN DUTEN LANAREKIN BAT EGINEZ

PERSONA DE CONTACTO: IRATI AMUNARRIZ
601 501 153 IAMUNARRIZ@MINDARA.ORG



Dibertsitate Funtzionala duten Pertsonak Artatzeko Gipuzkoako Elkartea
Asociación Guipuzcoana para la Atención de Personas con Diversidad Funcional